



Aurizko
Udala
Ayuntamiento de
Auritz/Burguete

Plaza del Ayuntamiento 1/ Udaletxe plaza 1
31640 AURITZ/BURGUETE (Navarra/Nafarroa)
Tel. 948760032
www.burguete.es

CIF P3105800A IFK

ELURRA KENTZEKO LANAK ADJUDIKATZEKO BALDINTZEN PLEGUA

1. 2024/2025, 2025/2026 eta 2026/2027 neguko denboraldietan elurra kentzeko lanak egin nahi dituzten guztiak aurkeztu ahal izango dira.
2. Bide nagusiek elurrik gabe egon beharko dute goizeko 8:00etarako, eta Udalak lehentasunak ezarriko ditu kaleak eta espazioak garbitzeko (zerbitzuak, sarbide zaileko etxebizitzak...).
3. Era berean, egunean zehar berriro garbituko da Udalak ezartzen dituen jarraibideen arabera. Halaber, **beharrezkoa denean**, ibilgailuak aparkatzeko lekuak elurrez garbituko dira.
4. Garbiketa-lanetako erantzukizun zibila esleipendunari dagokio.
5. Nolanahi ere, Udaleko langileek egiten dituzten oharrei jarraituko zaie, eta haiek jarduketa eremu berriak, e.a. ezarri ahalko dituzte, baita egokitzen jotzen den beste edozein neurri ere.
6. Esleipen-aldia denboraldi honetarako izango da. Eskaintzaren oinarritzko prezioa 60 €/lan ordua izango da (BEZ barne), eta hilabetea amaitzean Udalari jakinarazi beharko zaio ordaindu ahal izateko.
7. Interesaturik dagoen orok 2024ko urriaren 29ko 10:30 baino lehen bere eskaintza aurkeztu beharko du.
8. Eskaintzak urriaren 29ko 14:00etan irekiko dira.

ALKATEA